

**IKAko Barañaingo Sahats euskaltegiaren 2007-2008
ikasturteko jarduera txostena.**

Barañainen, 2008ko irailean.

1. Sarrera.

IKAko Barañaingo Sahats euskaltegiak 2007-2008 ikasturtean izaniko jardueraren berri ematea du helburu txosten honek. Izan ere, garrantzitsua iruditzen zaigu, labur-labur bada ere, gure lanaren nondik norakoak azaltzea horren berri izan nahi duen orori.

Beraz, ahaleginak egingen ditugu helduen euskalduntze alfabetatzearen berri ez duenak ere, xehe-mehe ez bada ere, txosten honetan azaldukoak zuzen xamar uler ditzan. Ederki asko dakigu ez dela erraza gure lanaren gorabeheren jabe egitea, gure jardueraren aurretiko ezagutzarik izan ezean. Hala ere, gu horretan saiatuko gara.

Horregatik zenbait ataletan 2006-2007 ikasturteari dagozkionak ez ezik, aurreko ikasturteetako erreferentziak ere aurkituko ditu irakurleak, ematen den informazioa ulergarriagoa izan dadin.

Esan dezagun, azkenik, norbaitek argibideren bat nahiko balu edo gure lana hobetzeko iradokizunen bat egin nahiko baligu, bene-benetan eskertuko geniokeela guregana jotzea.

2. Ikasleak.

161 izan dira gure euskaltegian urritik ekainera bitarteko ikastaroetan aritu diren ikasleak. Ikasle-orduak, berriz, 40.894 guztira.

Ikastaldean erritmoari dagokionez, guztiak astean 8 orduko erritmoan aritu dira, astelehenetik ostegunera, egunean 2 orduko saioetan. Ikasle bakoitzak 254 orduko ikastaroa egin du, beraz, 2007-08 ikasturtean. Aipagarria da talde guztiak astean 8 ordukoak izatea, hori baita, gure irudiko, ikasturte osoko ikastaroetan etekin didaktiko handiena ematen duen erritmoa. Are aipagarriagoa da datu hori kontuan izanik astean ordu gutxiagoko erritmoak ugaritzen ari direla helduen euskalduntzean, zoritxarrez. Izan ere, astean 8 eskola-ordu baino gutxiago jasotzeak ikaste prozesua luzatzea dakar, egunerokoan euskaraz ariko diren hiztunak lortzea zailtzea, azken batean.

Azken 7 ikasturteetako datuei erreparatuz gero, argi ikusiko dugu ez dagoela gorabehera handirik, ez ikasle kopuruan, ez ikasle-ordutan. Hala ere, ezer esatekotan, azken bi ikasturteetan gorako joera apala nabari dela esan genezake eta 2007-2008 ikasturtean aurreko 6 ikasturteetan baino ikasle gehiago izan eta ikasle-ordu gehiago eman ditugula. Nafarroan, tamalez, helduen euskalduntzeak beherako joera izan du denbora tarte horretan, bai ikasle kopuruan, bai ikasle-ordutan.

Hona hemen Barañaingo Sahats euskaltegiaren datuak:

2001-02	133 ikasle + 40 ikasle(udan)	35.614 ikasle-ordu
2002-03	126 ikasle + 10 ikasle (udan)	31.342 ikasle-ordu
2003-04	157 ikasle + 10 ikasle (udan)	38.422 ikasle-ordu
2004-05	154 ikasle	39.424 ikasle-ordu
2005-06	133 ikasle + 10 ikasle (udan)	33.696,5 ikasle-ordu
2006-07	148 ikasle	37.000 ikasle-ordu
2007-08	161 ikasle	40.894 ikasle-ordu

3. Irakasleak.

7 izan dira 2007-2008 ikasturtean gure zentroan lanean jardun duten irakasleak. Horietatik lau egunean 8 orduko lanaldiz aritu dira eta beste hirurak egunean 4 orduz. Azken hauetako bat *Bai Euskarari* egitasmoko teknikari ere aritu da egunean 4 orduz.

Bestalde, IKAKo Sahats euskaltegiko irakasleen eskarmentua 15 urtetik gorakoa da, batez beste. Nabarmentzeko datua, gure ustez, irakasleen iraunkortasuna ez baita herri ekimeneko euskaltegi gehienek ezaugarrietako bat, inondik ere. Are gutxiago, Nafarroako Gobernuak burutu duen politikaren ondorioz helduen euskalduntzearen geroa kolokan egon den azken urte hauetan.

Begien bistakoa da, gainera, eskarmentu handiko irakasleak izateak mesede egiten diola euskaltegiak Barañaingo herritarrei eskaintzen dien zerbitzuaren kalitateari.

Gogora dezagun, atal hau bukatzeko, eskolak prestatzeaz eta emateaz gainera, bestelako lan frankori egiten diotela aurre euskaltegiko irakasleek: lan didaktikoa (materialak sortu eta biltzea, gogoeta didaktikoetan parte hartzea, irakasle berriei laguntza didaktikoa ematea, irakasle izateko Iruñerriko IKAK ematen duen ikastaroa prestatu eta ematea, autoikaskuntzako zerbitzua ematea...), euskaltegiaren kudeaketa (ekonomia, lan burokratikoak, bulegoko lanak, lege kontuak...), kultur ekitaldien antolaketa, Udalarekiko eta Nafarroako Gobernuarekiko harremanak, salaketa eta diru bilketarako kanpainak prestatu eta gauzatzea, IKAKo gainerako zentroekiko koordinazioa, matrikulazio kanpainak prestatzea eta egitea, *Bai Euskarari Barañainen* egitasmoa gestionatzea, Solaskide eta Mintzakide proiektuak garatzea eta abar.

Lan horiek lanaldi osoko irakasle guztien artean banatzen dira, eta txosten honen ondorengo ataletan argiago ikus daiteke aipatu baino egin ez ditugun eginbehar horiek zein diren.

4. Didaktika.

Xehetasunetan sartu aurretik, komeni da gure lan didaktikoaren gaineko ohar batzuk egitea, atal honetan azalduko duguna ulergarriagoa izan dadin. Barañaingo Sahats euskaltea IKA euskalategi koordinakundeko kide da eta sare horretako euskalategiekin elkarlanean aritzen da, batez ere, Iruñeko Arturo Campion eta Atarrabiako euskalategiekin. Elkarlan horren alderdietako bat didaktikarena da eta Iruñerriko IKAk hiru euskalategi horiek lan didaktiko koordinatua egiten dute, zentroan berean egiten denaz gain. Bestalde, eskola emateko erabiltzen ditugun programazio eta materialak Iruñerriko IKAk sortuak dira, 30 urtetik gorako lan didaktikoaren emaitza.

Bukatu berri den ikasturtean, hilean bitan elkartu izan dira maila bereko taldeak zituzten Iruñerriko irakasle guztiak. Bilera horietan eskoletan eginikoa komentatu, eman beharrekoa ikusi, arazoak aztertu, iritziak eta esperientziak trukatu eta zenbait material egokitu egiten dira, besteak beste.

2. maila Ako material berria sortu da, Iruñerrian, eta Iruñerriko IKAREN Oinarrizko Mailaren definizioa ere landu da. Bi lan horiek segida izanen dute 2008-2009 ikasturtean.

2007ko irailean, berriz, gure euskaltegiko bi irakaslek glotodidaktika ikastaroa eman zuten irailaren 12tik 21a arte Iruñeko Arturo Campion euskalategian. Iruñerriko IKAk urtero egiten duen ikastaro horrek gure euskaltegietan aritzeko prest daudenen formazioa du helburu eta alderdi teorikoak eta praktikoak lantzen dira bertan.

2005-2006 ikasturtean Sahats euskaltegiak abian jarri zuen autoikaskuntza proiektua garatzen segitzen dugu. 2006-2007 ikasturtean Boga izeneko programa informatikoa erabiltzen hasi ginen, ordura arte erabiliriko Hezinet programaren orde. Boga Hezinet hobetua da eta ikasleak internet bidez erabil dezake, Hezinet ez bezala. Horrek, jakina, eskura jartzen dio zerbitzu hau ikasleari, ezinbestean euskaltegian berean ari gabe ere. Horrekin batean tutoretza zerbitzua ematen zaie ikasle horiei eta beren mailari dagokion euskaltegiko taldeetako batean ari behar izaten dute asteen behin mintzamina lantzeko. Bestalde, euskaltegiko ikasle guztiek

erabil dezakete programa hau, nahi izanez gero. Jendea erakartzea, lanbidea dela-eta beste aukerarik ez dutenei euskara ikasteko bide bat ematea eta, azkenik, gainerako ikasleei osagarri izan daitekeen zerbitzua eskaintzea dira proiektu xume honen helburuak. 2007-2008 ikasturtean 12 lagun izan dira zerbitzu honen bidez euskara ikasten aritu direnak.

5. Formazioa.

Irakasleen prestakuntza hobetzea beti izan da kezka Sahats euskaltegian. Etengabeko gogoeta eta formazioa beharrezkoa da edozein jardunbidean. Alor honetan gure irakasleek 2007-08 ikasturtean ere zenbait jardunaldi, ikastaro labur eta hitzalditan hartu dute parte. Hona hemen aipagarrienak:

- Goi mailetako taldeetan erabiltzen diren tekniken gaineko lan saioa, Iruñeko Arturo Campion euskaltegian, ekainaren 19an. Iruñerriko IKako irakasle guztiek hartu zuten parte.
- Iruñerriko IKaren egoera didaktikoaren diagnostikorako saioak, AMIA matrizeak erabilirik, ekainaren 20an eta 27an. Sahats euskaltegiko irakasle batek koordinatu zuen eta Iruñerriko IKako irakasle guztiek parte hartu.
- *Euskara Elkarteak ibilian* jardunaldia. Euskara Elkartearen Topaguneak Donostian, 2007ko azaroaren 23an, antolaturiko hitzaldi sorta. Hizlariak eta mintzagaiak honako hauek izan ziren:
 - Paula Kasares: norbanakoaren jarreratik talde jarrerara.
 - Mirari Bereziartua: coaching aldaketa.
 - Jasone Mendizabal: mintzapraktika egitasmoak.
 - Gorka Berruetabeña: Euskara Elkarteak ibilian.
 - Ferran Suay: norbanakoaren hizkuntzarekiko jarrera. TELP esperientzia.
 - Fermin Etxegoien: euskara estetika bezala.
 - Amaia Antero: motibazioan eragiten emozioen bidetik.

Sahats euskaltegiko irakasle batek eta Barañaingo Udalaren Euskara teknikariak hartu zuten parte.

- Web orria kudeatzen ikasteko 3 lan saio, Ametzagaña enpresakoek emana, Lasarten, 2007ko urriaren 17an eta 31n, eta abenduaren 18an. Euskaltegiko irakasle batek hartu zuen parte.
- Boga “ikasten” plataforman izeneko ikastaroa, HABEk antolatua, irailaren 18an eta 19an, Donostian. Euskaltegiko autoikaskuntza zerbitzuaren arduradunak eta beste irakasle batek hartu zuten parte.
- Formaziorako barneko ikastaroak:
 - Web orriak kudeatzen ikasteko saioa. Ametzagañakoen ikastaro laburra egin zuenak Sahatseko beste irakasle bati emana.
 - BOGA programa kudeatzeko ikastaroa teorikoa eta praktikoa. Sahats euskaltegiko autoikaskuntza zerbitzuaren arduradunak bertako beste irakasle bati emana, 2008ko abuztuan.
 - Diru kontuak euskarri informatikoan Kontabilitate Plan Nagusiaren arabera eramateko ikastaro laburra. Artekari kudeaketa agentziako teknikari batek emana Sahatseko bi irakasleri, 2008ko irailaren 12an eta 30ean.

6. Finantzazioa.

Bi dira Nafarroako herri ekimeneko euskaltegien diru iturri nagusiak. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Euskarabidearen bitartez bideratzen duen dirulaguntza, bata; eta ikasleak ordaintzen duena, bestea. Bi diru iturri horiek ez ezik, beste batzuk ere izan dira euskaltegien sorreratik beretik. Horien artean ditugu, besteak beste, tokian tokiko Udalak emaniko diru laguntzak, Udal Mankomunitateek emanikoak; eta txosna, zozketa, jaialdi eta material salmentatik lortutako dirua.

Sahats euskaltegiaren kasuan aipatzekoa da Barañaingo Udalak emaniko laguntza, bai dirutan, bai azpiegitura eta hornidura mailan. Barañainen 1976-77 ikasturtean helduei euskara irakasten hasi gintzaizkienetik, horretarako erabili izan ditugun lokal ia guztiak publikoak izan dira. Barañaingo Udala sortu baino lehenago Kontzejuarenak eta, 1984an Udala osatu zenetik, Barañaingo Udalak utziak, inolako etenik gabe. Horrez gain, lokal horietako ura eta argindarra Udalak ordaintzen du. Gainera, euskaltegiak autoikaskuntza gela abian jartzeko Udalak emaniko subentzioa eta hornidura informatikorako jasotzen dugun diru laguntza ere hor daude, eta baita urtero lokalaren konponketetarako jasotzen duguna ere. Argi dago horrek guztiak euskaltegiari dakarkion gastu murrizketaren garrantzia, eta baita euskaltegiak 16 urtetik gorako herritarrei eskaintzen dien zerbitzua babesteko Udalaren ageriko borondatea ere.

Izan ere, Sahats euskaltegiaren lan akademikoari erreparatuz gero, garbi dago, herriko helduen formazioaren alorrean, euskaltegiarena dela jarduerarik garrantzitsuena, bai jende kopuruari begiraturik, bai eskola-orduei begiraturik, 161 lagun eta 40.894 eskola-ordu, hain zuzen, 2007-08 ikasturtean.

Hala ere, azken 4 ikasturte hauetan makina bat buruhauste izan dugu Nafarroako euskaltegietan diru kontuak direla eta. Arestian aipaturiko bi diru iturri nagusi horietako batean aldaketa laugarria izan baitzen: 2005ean Nafarroako Gobernuak heren batera ekarri zuen ordura arte jasotzen genuen diru laguntza eskasa. Ondorengo urteetan Gobernuak herri ekimeneko euskaltegiei emaniko dirulaguntzetan gorabehera batzuk izan dira. Dirulaguntza horren bilakabidea azaldu aurretik, ordea, bi ohar egitea ezinbestekoa da, 18/1986 Foru Legearen gainekoa, aurrenekoa, eta Gobernuak dirulaguntza nola ematen duen ulertzeko, bigarrena.

18/1986 Foru Legeak Atariko Tituluko 1. artikuluan lege horren ezinbesteko helburuez dioena gogoratzea komeni dela uste dugu. Hala dio aipatu Foru Legeak:

- Hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.
- Euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

Helduen euskalduntze alfabetatzeari dagokionez, Gobernuak bi zentro ditu (Uharteko Zubiarte euskaltegia eta funtzionarioak baino hartzen ez dituen NAPI) eta Hizkuntza Eskola Ofizialak Iruñeko eta Tuterako zentroak. Nafarroa osorako eskaintza mugatua, bistan denez. Beraz, herri ekimeneko euskaltegiak eta gau-eskolak dira euskara ikasi nahi duten nafar guztiei bere herrian bertan zerbitzua ematen saiatzen direnak, Foru Administrazioak egin beharko lukeena eginez.

Gobernuak Nafarroako herri ekimeneko euskaltegiei ikasleko eta orduko hainbesteko bat ematen die, dirulaguntza modulua deitzen duguna. Modulu hori ordaindu ahal izateko urtero horretarako kontusailean diru kopuru jakin bat jartzen du. Ondorengo hauek dira azken urte hauetako datuak. Sahats euskaltegiko ikasleak azken 7 ikasturteetan eskola ordu bakoitzeko zenbat ordaindu duen ikustea ere interesgarria iruditzen zaigu, horiek baitira gure bi diru sarrera nagusiak.

Urtea	Kontusaila	Modulua	Matrikula
2001	647.290€	0,75€	0,91€
2002	570.962€	0,85€	1,10€
2003	539.697€	0,95€	1,20€
2004	528.957€	0,95€	1,32€
2005	180.000€	0,30€	1,44€
2006	233.600€	0,43€	1,56€
2007	500.000€	1,05€	1,62€
2008	490.000€	1,19€	

Begien bistakoa da kontusailean izan den jaitsiera. Izan ere, 2001ean baino 157.290€ gutxiago banatuko ditu Nafarroako Gobernuak 2.008an, 2001ean baino %24,29 gutxiago, okerrik ez badago. Okerrik ez badago, diogu, Euskarabideko arduradunek dagoeneko onartu dutelako diru falta izan dezaketela zenbait arlotako laguntzak osorik banatzeko.

Ikasleek ordaintzen duten diru kopuruan, ordea, igoera nabarmena egin behar izan dugu gure euskaltegiei zabalik eutsi ahal izateko. Azken zazpi ikasturte hauetan % 78,02ko igoera metatua izan da, nahiz eta urtez urte ahal zen gutxiena igotzen saiatu. Azken bi ikasturteetan matrikulak izan dituen garestitzeak %8,33koa eta %3,84koa izan dira. Igoera apalagoak aurretik eginikoak baino. Hala ere, tokitan dago herritarrek euskara dohainik ikasteko gure helburua.

Dirulaguntza moduluan, berriz, gorabehera handiak izan dira, maila barregarritik (0,30€, 2005ean) oso eskasera (1,19€, 2008an). Garbi dago bestalde nolako beherakada izan den Nafarroako herri ekimeneko euskaltegiek emaniko ikasle-orduetan, kontusailean askozaz ere diru gutxiago egonik modulu altuagoak ordaindu ahal izan baitituzte. Barañaingo euskaltegian ez da halako beherakadarik izan, zorionez; aitzitik, azken bi ikasturteetan %21,35eko igoera izan dugu ikasle-ordutan.

Beraz, Gobernuak gero eta diru gutxiago bideratzen du Nafarroako euskaltegiak laguntzera, ikasleek gero eta gehiago ordaindu behar izaten dute, gero eta ikasle-ordu gutxiago ematen dira, oro har, eta ematen duten dirulaguntza eskasa da oso.

2008an ikasle-orduko jasoko omen dugun modulua zenbatekoa den neurtzeko ikasle-orduko kostuaren gaineko datu batzuk azaldu beharra dagoela iruditzen zaigu. Argitu dezagun lehenik ikasle-orduko kostuaren kontzeptua erabiltzen dugula Nafarroako Gobernuak ikasle-orduen arabera banatzen dituelako dirulaguntzak. Nafarroako IKAk hamaika aldiz eskatu izan dio Gobernuari gure jarduera berean aritzen diren Administrazioaren bi euskaltegietan – NAPIn eta Zubiarten- zenbatekoa den ikasle-orduko kostua. Alferrik, ordea, datu hori eskuratzerik ez baitugu izan orain arte.

Bestalde, 1995ean zenbait euskaltegitan egindako azterketa baten arabera, EAeko Gobernuaren aginduz, ikasle-orduko kostua 500 eta 700 pta. bitartekoa zela badakigu, 3€ eta 4,21€ bitartekoa, alegia.

Bukatzeko, Sahats euskaltegiak eginiko hurbilpen baten berri emanen dugu. Horretarako Euskal Estatistika Erakundearen zenbait datu erabili ditugu. Datuok 2005ekoak dira eta EAEkoak, Nafarroako daturik ezin izan dugu eskuratu eta. Urte horretan EAEn lehen hezkuntzan ikasle eta orduko kostua 5,93€koa izan zen. Nafarroako Gobernuak 2006-2007 ikasturtean emaniko dirulaguntzaren batez bestekoa, berriz, 0,86€koa. EAEko lehen hezkuntzako ikasle baten orduko kostuaren %14,50 baino ez zigun eman Nafarroako Gobernuak 2006-2007 ikasturtean.

Hortaz, erraz asma lezake irakurleak zenbaterainoko baliabide eskasiari egin behar izaten diogun aurre Barañaingo euskaltegian ez ezik, Nafarroako herri ekimeneko euskaltegi guztietan.

7. Ekitaldiak.

Asko eta era askotakoak dira euskaltegiak antolatzen dituen ekitaldiak. Guztiek, ordea, helburu bera izaten dute, gure ikasleei eta gainerako herritarrei euskal kultura ezagutaraztea eta euskaraz mintzatzeko bide ematea, hain zuzen ere.

Izan ere, ikasgelatik kanpo euskaraz hitz egiteak ikaste prozesua arintzea dakar, hau da, ikasleak euskara hobeki eta lasterrago ikastea. Eta horretarako aukera bikaina izaten dute euskaltegiak antolatzen dituen kultur jardueretan.

Hona hemen 2007-2008 ikasturtean eginiko ekitaldiak:

1. Txokolate-jatea eta gaztaina-jatea, urriaren 25ean, Haizea elkartean. 150en bat lagunek hartu zuten parte ikasturteari hasiera emateko ekitaldi horretan.
2. Mendi ibilaldia, azaroaren 17an. Etxauriko Sarbil mendian izan ziren 20 lagun.
3. Talo-lantegia, urtarrilaren 24an, Haizea elkartean. 160 lagunek hartu zuten parte.
4. Inauteriak, otsailaren 1ean, Haizea elkartearekin eta Gazte Asanbladarekin elkarlanean.

5. Santa eskea, otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan. 70 bat lagunek osatu zuten gure taldea. Euskaltegiko ikasleek sorturiko koplak abestu genituen, Barañaingo txistulariak lagundurik.
6. Sagardotegira txangoa, martxoaren 8an, 80 lagun izan ziren Tolosako sagardotegi batean bazkaltzen.
7. Mendi ibilaldia, apirilaren 19an. Ezkaba mendian izan ziren. 20 lagun.
8. Ardo dastaketa, apirilaren 24an, Haizea elkartean. 90 lagun.
9. Barañainen Eguna, maiatzaren 24an. Herriko hainbat taldek hala erabakirik Sahats euskaltegia omendu zen egun horretan, Barañainen 1976-77 ikasturtetik hona eginiko lanagatik. Omenaldi ondorengo bazkarian 200 lagun elkartu ziren.
10. Sagrario Aleman Astiz euskaltzainaren Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia, maiatzaren 27an, euskaltegian. 50 lagun. Maiatzaren 31n egin zuen hitzaldi ofiziala aurrez entzuteko aukera izan zuten gure ikasleek.
11. Iruñeko harresien barnako ibilaldia, maiatzaren 29an, 50 bat parte-hartzaile.
12. Entzierroari buruzko hitzaldiak, ekainaren 5ean, euskaltegian. Hizlaria: Josu Asurmendi, euskaltegiko irakaslea.
13. Ipuin kontalaria: Koldo Amestoy. Ekainaren 11an, euskaltegian. 60 lagun.
14. Kurtso bukaerako festak, ekainaren 18an.
15. Euskal poteoa, ekainaren 27an, Barañaingo festetan.

Bestalde, ikasturte honetan aurrenekoz antolatu dugu euskal poteoa Iruñeko Alde Zaharrean, hilean behin, ostiraletan, eta aldiko 12ren bat lagun elkartu ziren, betiere, gure ikasleei euskaraz egiteko beste aukera bat eman nahirik.

8. Eraketa.

Amaitu berri dugun ikasturteko eraketan landu ditugun ildo nagusiak labur-labur azalduko ditugu atal honetan.

2007-2008 ikasturtean aurrekoan lantzen hasi ginen prozesu batean aurrerapen handia egin dugu. Sahats Fundazioaren sorreraz ari gara. Hiru dira Sahats elkartetik Sahats Fundaziora igarotzeko arrazoi nagusiak.

2005ean, Nafarroako Gobernuak gure dirulaguntzak izugarri murriztean, herritarrei dirua eskatzen hasi behar izan genuen “Gobernua zeu izan” kanpainaren baitan, eta orduan ohartu ginen aurrerantzean diru bilketaren bat egiteko Fundazioarena legezko egitura egokiagoa dela kultur elkarteara baino, dirua ematen duenak desgraba baitezake zergak ordaintzeko garaian. Hona hemen, beraz, lehen aipaturiko hiru arrazoietatik lehenengoa.

Bigarrena ere diru kontuei lotua da. Egunen batean euskaltegiak irakaskuntzaz landako beste zerbitzuren bat ematea erabakiko balu, itzulpen zerbitzua edota hizkuntza planak egitea, esate baterako, jarduera horretatik lorturiko irabaziak Fundazioak har litzake. Hau da, enpresa jardueraren bat abian jartzea erabakiko bagenu, enpresa horrek emandako etekinak euskaltegiaren proiektura bideratzeko aukera ematen du Fundazioak. Oraingoz, ez dugu horrelako asmorik, baina baliteke etorkizunean horrelako lanen batean hastea.

Azkenik, Barañaingo Udalak gure jardueraren berri zuzen-zuzenean izan zezan nahi genuen, eta Fundazioaren Patronatuan Udalari ordezkari bat izateko prestatu genituen Fundazioaren estatutuak. Udalak, ordea, ez zuen gure eskaintza onartu, eta Fundazioaren estatuak aldatu behar izan genituen. Dena dela, ez dugu baztertzeko egunen batean Udalak bere ordezkaria izatea Patronatuan. Horrek, jakina, Udalaren horretarako borondatea eskatuko luke, eta baita Fundazioaren estatutuak berriz aldatzea ere.

Sahats Fundazioa 2007ko abuztuan sortu zen eta poliki-poliki Sahats elkartearen betebeharrak bere egiten ari da. Prozesu horretan aurrerapauso nabarmenak egin ditugu 2007-2008 ikasturtean.

Urte asko dira Sahats euskaltegiko irakasle batek, Arturo Campion euskaltegiaren zuzendariarekin batera, Nafarroako IKAREN ordezkari aritzen dela, bai Nafarroako Gobernuaren aurrean, bai Nafarroako alderdi politikoekiko harremanetan. 2007-08 ikasturtean ere, Nafarroako Parlamentuan ordezkaturik dauden alderdi guztiekin elkartu eta IKAK eta AEKK 2008ko aurrekontuetarako prestatuturiko proposamena aurkeztu zitzairen.

Bestalde, askotan elkartu izan gara Euskarabideko arduradunekin ere azkenaldi honetan. Euskarabidea Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak sortu duen erakundea da, beste zeregin batzuen artean, herri ekimeneko euskaltegiendako laguntzak erabaki eta kudeatzen dizkiena. Zoritxarrez, asmo onak gorabehera, Euskarabidearen baliabide eskasia etsigarria da. Dena dela, 2009ko aurrekontuetan ikusiko da Euskarabideari zenbaterainoko bitartekoak esleitu dizkioten eta zein den Gobernu berriaren benetako hizkuntza politika.

9. Bai Euskarari Barañainen.

2007ko urrian jaso zuten *Bai Euskarari* egitasmoan parte hartzeko gonbita Barañaingo 46 elkarte eta talde soziokulturalak. 23 elkartek erabaki zuten *Bai Euskarari Akordioa* sinatzea eta elkarteen alorrean euskararen erabilera handitzeko plan estrategikoa prestatzeari ekin zioten bi taldetan. Batean hainbat talderen ordezkari euskaldunak aritu ziren, bestean erdaldunak. Abenduaren 14an bukatu zuten aipatu plana eta egun talde bakoitza zer konpromiso hartuko dituen erabakitzen ari da.

85 dira, horrenbestez, proiektuan parte hartzen ari diren Barañaingo entitateak, eta egitasmoa 7 jarduera alorretara zabaldu da, 2001eko azaroan abian jarri genuenetik. Arestian aipatu dugun bezala, 23 dira *Bai Euskarari* egitasmoan lanean ari diren entitate soziokulturalak, 8 alderdi politikoak, 11 zerbitzu orokorretako entitateak, 8 hezkuntzakoak, 21 merkataritzakoak, 11 ostalaritzakoak eta 4 bestelakoak (Barañain Auditorioa, Lagunak elkarte...). Ezin ahaztu, bestalde, Barañaingo Udala bera ere proiektuan parte hartzen ari dela, oso-osorik finantzatzeaz gain.

Aipatu entitateetatik 20k bereganatu zuten iragan urteko irailaren 21ean Barañaingo Udaletxean eginiko ekitaldian. Ziurtagiri horren bidez, enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek euskararekiko konpromisoa erakusten diote herritarrei. 2006an hasi ginen *Bai Euskarari Ziurtagiria* banatzen eta urte horretan 14 ziurtagiri eman ziren. Beraz, kontuan hartzeko moduko igoera izan zen 2007an, 2006an baino 6 ziurtagiri gehiago eman baikenituen.

Administrazioaren lan alorrean, berriz, Barañaingo Udal ordenantzaren 15. artikulua dioenari jarraikiz, Batzorde tekniko kualifikatua osatu zen abenduaren 13an. Barañaingo alkate jaunak zuzenduriko batzorde horretan euskara arloaren ardura zuen zinegotziak, Euskararen Nafar Institutuko teknikari batek, Udalaren enpresa batzordearen ordezkari batek, Udalaren euskara teknikariak, *Barañainen Bai Euskarari* egitasmoko teknikariak eta proiektu horren kudeatzaileak hartu zuten parte. Batzorde hori 5 aldiz elkartu zen 2007ko abendutik 2008ko apirila bitartean eta, besteak beste, plantilla organikoa eta euskararen protokoloa landu zituen. Udal Gobernuan izaniko aldaketa zela medio, batzorde hori bertan behera gelditu zen 2008ko apirilean. Dena dela, urtea amaitu baino lehenago osatzekoa da, berriz ere, batzorde tekniko kualifikatua.

Aipa dezagun, azkenik, 2008ko urtarrilean Barañaingo etxe guztietan *Berripaperaren* 6. alea jaso zela. Buletin horrek *Bai Euskarari* proiektuak urtebetean izaniko garapena biltzen du, herritar guztiek aurki 7 urte beteko dituen egitasmo honen berri zuzena izan dezaten.

10. Beste batzuekin elkarlanean eginak.

IKAko Barañaingo Sahats euskaltegiaren lan moldean beti jo izan da garrantzitsutzat elkarlana. Izan ere, euskararen aldeko lanean ari direnekin aritzeak mesede baino ez dio egiten hizkuntza normalizazio prozesuari. Atal honetan, 2007-2008 ikasturtean euskaltegiak elkarlanean burutu dituen lanetako batzuk azalduko ditugu, labur-labur bada ere.

Barañaingo euskaltegiak **IKAko gainerako euskaltegiekin** duen harremana zehatz-mehatz azaltzeak luze joko luke. Esan dezagun, hala ere, koordinazio hori zertan den hitz gutxitan: lan didaktikoan – material sorkuntza, esperientzia trukaketa, antolaketa didaktikoa...- eta eraketan – matrikulazio kanpainak, udako barnetegiak, elkartasun ekonomikoa, Gobernuen aurreko solaskidetza eta harremanak...-.

Hori horrela izanik, **Iruñerriko IKAko** zentroen arteko harremana oso handia da, eta bereziki estua Sahats euskaltegiaren eta **Iruñeko Arturo Campion** euskaltegiaren artekoa, hamaika arrazoi direla medio. Adibide gisa, euskaltegi biek antolatzen dituzten kultur ekitaldi asko eta askotan zentro bietako ikasleek hartzen dutela parte aipatuko dugu.

Elkarlan horrek, besteak beste, gure ikasleei kultur ekitaldi ugari jartzen die eskura eta IKAko Iruñerriko gainerako euskaltegietako ikasleekin harremanak izateko aukera ematen die.

Barañaingo Udalaren Euskara Zerbitzuarekin ere lan franko egiten dugu. Ez bakarrik *Bai Euskarari* egitasmoaren baitan, baizik eta egunerokoan sortzen diren beste zeregin askotan. Esaterako, matrikulazio kanpainaren koordinazioan, Udalak antolatzen duen ipuin eta bertso lehiaketan, ikasleendako diru laguntzen kontrolean, informatika kontuetan, euskararen erabileraren kale neurketa egiteko garaian...

Barañain Auditorioarekin ere harreman egokia dugu, euskaltegiak, tarteka, euskarazko kultur ekitaldiak programatzen baititu bertan eta Auditorioak antolaturiko ekitaldien berri zabaltzen baitu ikasleen artean. Bestalde, *Bai Euskarari* proiektuan parte hartzen ari da Barañain Auditorioa eta parte hartze horrek etengabeko elkarlana dakar.

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren Euskara Zerbitzuarekin batean, **Solaskide** programan ere aritzen da Barañaingo euskaltegia, Nafarroako beste zenbait euskaltegi bezala. Programa horren bidez gure irakasle batek Alaiz institutuko DBH eta Batxilergoko 5 talderi eskolak eman dizkie. Eskola horien helburu nagusia mintzamena lantzea da, Hizkuntza Eskolako 4. eta 5. mailako azterketak gainditzeari begira.

Mintzakide programa ere aipagarria da. Euskara elkarteen federazioarekin, alegia, **Topagunearekin**, eta euskararen aldeko lanean ari diren beste eragile batzuekin zerbitzuekin elkarlanean Iruñerrian abian den egitasmo honek euskal hiztun osoak eta ez horren hiztun onak talde txikietan biltzen ditu, hiztun kaxkarxeago horiek bere hizkuntza gaitasuna hobetu dezaten. Iruñerriko zenbait Udalek finantzatzen dute egitasmo hau, Barañaingo Udala barne, eta Barañainen Sahats euskaltegia arduratzen da parte hartzaileak bilatzeaz eta programaren berri zabaltzeaz.

Haizea elkartearekin ere elkarlanean aritzen da Sahats euskaltegia. Batetik, elkarte horrekin egina dugun hitzarmenaren bidez, elkartearen egoitza erabiltzeko modua izaten dugu, ikasleekin egiten ditugun otorduetan eta kultur ekitaldietan. Bestetik, Inauterietako festa eta Santa Ageda bezperako abesbatza antolatzen ditugu elkarrekin.

Bestalde, Barañaingo **Euskal Herrian Euskarazekin** harremanak ditu Sahats euskaltegiak, euskararen sustapena lan ardatz duen taldea den aldetik eta, IKA bezala, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko kide.

Aipa dezagun azkenik, urtero **Alaiz Ikastetxe Publikoarekin** batera egiten den lana euskaltegiaren matrikulazio kanpainan.